

22. Buletina

APIRILAK 2016

LAN OSASUN BULETINA

AURKIBIDEA:

- 1. HEGO EUSKAL HERRIKO LAN-EZBEHARREN EGOERAREN TXOSTENA 2015**
- 2. LAN-ISTRIPU HILGARRIEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2016KO URTARRILATIK- APIRILARTE**

22. Buletina

apirilak 2016

1. HEGO EUSKAL HERRIKO LAN-EZBEHARREN EGOERAREN TXOSTENA 2015. URTEAN

2015ean, lan-ezbeharren egoerak nabarmen egin du txarrera aurreko urteen aldean, lan-istripu gehiago gertatu baitira. Jarduera ekonomikoak hobetu izanak lan-ezbeharren igoera eragin du, sortu diren enplegu berri ia guztiak prekarioak baitira: lanaldi partzialeko kontratazioak, behin-behinekotasuna, miseriazko soldatak... Abagune horretan, lan segurtasuna eta osasuna zokoratzen dira, eta, horren ondorioz, lan-istripuek eta lanbide-gaixotasunek gora egiten dute. Enpresa gehienetan, gainera, ez dago prebentzioa landuko duen kulturarik, hau da, segurtasuna ekoizpenaren gainetik jarriko duen kulturarik.

2015ean, lan-istripuen zenbaketa ofizialak gora egin du, 2014. urtearekin alderatuta, bai eta lan-istripu hilgarrien zenbaketa ofizialak ere. Hego Euskal Herriko gobernuek lan-ezbeharren gorakada berretsi, eta biztanleria aktiboa igo izanari zor zaiola adierazi dute, jarduera ekonomiko handiagoak ezinbestean lan-istripu gehiago eragiten duelakoan. Onartezina da erakunde publikoek argudio horrekin kontentatzea, horrelako istripu edo lanbide-gaixotasun gehienak saihestu ahalko baitziren, neurri egokiak hartuta. Badira behar adina baliabide horretarako, eta borondate politikoa eta dirua baizik ez dira falta. Oraindik ere, langile gehiegi hiltzen dira lan-istripuen edo lanbide-gaixotasunen eraginez.

2007ko laugarren hiruhilekotik 2015eko laugarren hiruhilekora bitarte, 115.000 lagunetan jaitsi da EAEko biztanleria landuna, eta 69.100 langabe gehiago dira. Nafarroan, berriz, denboraldi berean, 32.500 lagunetan jaitsi da biztanleria landuna, eta 28.100 lagun gehiago dira langabezian.

2015ean, biztanleria landuna EAEn nahiz Nafarroan igo da. EAEn, zehazki, 20.440 lagunetan, eta Nafarroan, berriz, 100 lagunetan. Guztira, beraz, 20.500 lagunek gehiagok izan dute lana HEHn, 2015ean. Hobekuntza hori gorabehera, azpimarratu behar da geldirik dirauela lan-ezbeharrik gehien gertatzen diren sektoreetako jarduerak, besteak beste eraikuntzak.

Era berean, 2015ean sortu den enplegurik gehiena lanaldi partzialekoa da, eta kontratazio mota horretan, prebentzioaren ezarpen eta txertaketa maila txikiagoa da lanaldi osoko enpleguan baino.

1.- DATU OFIZIALEN ANALISIA

1.1- EAE

Aurreko urteetan bezala, beste behin ere salatu behar dugu Osalanek ez digula behar den informazioa ematen lan-istripuen jarraipen zehatza egiteko (arinak, larriak eta hilgarriak), eta oraindik ere ez digute eman nahi EAEn “gertaturiko istripuen” erregistroa.

Osalaneko zuzendaritzak ez du nahi sindikatuok datu horien gaineko geure irakurketa egiterik, hau da, bertsio ofizialaz bestelako irakurketa egiterik. Urteak daramatzagu salatzen istripu jakin batzuk kendu egiten direla EAEn gertaturiko istripuen zerrendatik estatistika ofizialetan erregistratu baino lehen, lan-istripuztat sailkatu ez direlako. Horrela, istripu horien artean daude, besteak beste, autonomo batzuek izaten dituztenak, eta garraiolariak lanaldian eta lantokian izaten dituzten istripuak, trafiko istripuen erregistroa bideratzen dituztelako.

Egoera horrek behartuta, datuak bestelako iturrien bidez osatu beharrean gaude, Hego Euskal Herriko lan-ezbeharren gaineko irakurketa osoa egite aldera. Ondorioz, zailtasun handiak ditugu EAEn egiazki gertatzen diren lan-ezbeharren kopurua jakiteko.

EAEko lan-ezbeharren estatistikei dagokienez, Osalanek bere webgunean emandako datu ofizialen arabera, 2015ean guztira **82.699** lan-istripu gertatu ziren, haietatik **50.828** baja hartu barik, eta **31.871** baja hartuta. Datu horri aurten berriro gaixotu diren 1.650 kasu gehitu beharko litzaizkioke. 2014an, Osalanek **75.436** lan-istripu zenbatu zituen, haietatik **45.790** baja barik, eta **29.646** baja hartuta. Horrek esan nahi du 2015ean % **9,6ko** igoera izan dela istripu kopuru osoan, aurreko urtearen aldean.

Istripu hilgarrien kasuan, datu ofizialek diote lanaldian **33** langile hil zirela 2015ean EAEn, haietariko bost “in itinere”. 2014an, ofizialki, **30** hildako gertatu ziren; istripu hilgarriak, beraz, igo egin dira. Igoera *in itinere* gertaturiko lan-istripuetan gertatu da.

2015

EAE	L.I.	BAJA GABE	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIA K	GUZTIRA
BIZKAIA		23.325	15.149	76	15	38.565
GIPUZKOA		15.987	9.179	65	15	25.246
ARABA		11.516	5.684	35	3	17.238
EAE		50.828	30.012	176	33	81.049(*)

Iturria: Osalan

(*)kopuru horri berriro gaixotutako 1.650 kasu gehitu beharko litzaizkioke.

2014

EAE	L.I.	BAJA GABE	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIA K	GUZTIRA
BIZKAIA		20.471	13.818	68	15	34.372
GIPUZKOA		14.475	8.697	69	11	23.252
ARABA		10.844	5.394	19	4	16.261
CAPV		45.790	27909	156	30	73.885 (*)

(*)kopuru horri berriro gaixotutako 1.551 kasu gehitu beharko litzaizkioke

Iturria: Osalan

2015ean, beraz, Osalanek **33** istripu hilgarri zenbatu ditu EAEn. Dena dela, informazioa eskuratzeko ezarri diguten murrizketaren ondorioz, ezin dugu jakin zenbat istripu hilgarri ezabatu dituzten zenbaki horretara iristeko. Adibidez, ezin dugu egiaztatu zenbaki horietan sartu ote duten etxe enplegatu gisa lan egiten zuen etxean hil zen langile nikaraguarra, edo Gipuzkoako errepide batean bere buruaz beste egin zuen garraiolari moldaviarra, edo arrantzan ari zela Hondarribian hildako arrantzalea, edo Getxon istripu ez-traumatikoaren ondorioz hil zen autonomoa, besteak beste.

EAEko intzidentzia-indizeari dagokionez (hau da, baja eragiten duten lan-istripuen kopurua 1.000 langile okupatu bakoitzeko), 2015ean zertxobait igo da lau sektoreetan aurreko urteetako indizeen aldean; 2014an, 36,01 izan baitzen, eta 2015ean, berriz, 36,15. (Lehen sektoreaz, eraikuntzaz, industriaz eta zerbitzuaz ari gara).

Lurraldez lurralde, Bizkaian, intzidentzia-indizerik handieneko sektorea lehen sektorea izan da (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) 95,89rekin, eta ondoren, eraikuntza, 76,04rekin. Gipuzkoan, aldiz, intzidentzia-indize handieneko sektorea eraikuntza izan da, 82,72rekin, eta ondoren, lehen sektorea, 77,08rekin. Araban, intzidentzia-indize handieneko sektorea eraikuntza izan da, 77,45ekin, eta alde handira, industria dago, 58,08rekin.

Zerbitzuen sektoreak intzidentzia-indizerik apalenena izaten jarraitzen du hiru lurraldeetan, aurreko urteetan bezala.

1.2- NAFARROA

Nafarroan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ere istripu jakin batzuk kentzen ditu estatistika ofizialetatik, hala nola autonomoek, kooperatibistek eta enpleguaniztunek dituzten istripuak, edota ezarrita dauden epeetatik kanpo bidaltzen diren istripu-agiriak.

Txosten hau prestatzeko datara bitarte, Nafarroako Institutuak ez ditu oraindik argitaratu 2015eko laugarren hiruhilekoko lan-ezbeharrei dagozkien datu estatistikoak; beraz, ezin ditugu erkatu datu orokorrak aurreko urtearekin.

Baja eragin duten lan-istripuak 5.657 izan dira Nafarroan urteko lehen bederatz hilaeteetan (urtarrila-iraila), "in itinere" istripuak barne. Baja eragin duten istripu horietatik, 5.602 arinak izan dira, 44 larriak, eta 11 hilgarriak. Istripu hilgarriak RESL laburpenekin erkatu dira (lan-ezbeharren laburpen estatistikoak). Nafarroako Institutuak hilean behin bidaltzen ditu laburpenak.

L.I. NAFARROA URTARRILA- IRAILA	ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	GUZTIRA
2015	5602	44	11	5657
2014	5326	50	12	5388

Iturria: www.seg-social.es

Hona ekarritako behin-behineko datuek erakusten duten bezala, lehen hiru hilabeteetan Nafarroan baja eragin duten lan-istripuak gehixeago izan dira arinei eta larriei dagokienez, 2015ean baino. Istripu hilgarri bat gutxiago izan da, ordea.

Datu ofizialei dagokien atal hau bukatzeko, gogoratu beharra dago estatistika ofizialek ez dutela inola ere erakusten gure lantokietako lan-ezbeharren egiazko errealitatea. Lehenago aipatu dugu Osalanek eta Nafarroako Institutuak ez dituztela hainbat istripu mota estatistika ofizialetan sartzen. Horrez gain, beste istripu asko ere ez dira erregistratzen, besteak beste honako arrazoi hauek direla tarteko:

- Batzuetan, langileek berek ez dituzte lantokietan gertatzen diren istripuak jakinarazten, enpresen errepresalien beldur (zigorrek, kanporatzeak...), egungo abagunean prekaritatea gero eta handiagoa baita, eta langileak beldur dira ez ote duten lana galduko.
- Enpresek berek lan-istripu batzuk ezkututzen dituzte, hainbat arrazoi tarteko: beren irudiari kalte ez egiteko, administrazioak enpresari zehapenik ez jartzeko, edota prebentzio-arloko diru-laguntzak eskatu ahal izateko; esaterako, murrizketak kotizazio sozialetan, lan-ezbeharren indizeak sektoreko batez bestekoaren aldean murriztu izanagatik (“bonus” delakoa). Sistema kaltegarria da, eta istripuak ezkutatzea sustatzen du.
- Mutuek askotan ez dituzte gertakarien lan jatorria onartzen, eta behin eta berriz errekurtsioak aurkezten dituzte. Kontuan hartuta mutuek gero eta botere handiagoa eta gero eta eskumen gehiago dituztela, istripu asko ez dira aintzat hartzen.

2.- ELAren DATUEN ANALISIA

2015ean, **ELAk** gutxienez **54 hildako zenbatu ditu**, lan-istripuek eraginda Hego Euskal Herrian (42 EAEn, eta 12, Nafarroan); iturri ofizialek, aldiz, **44** hildako. Horrek esan nahi du azpi-erregistroko aldea % 22,72 dela. Istripu hilgarrien datu hori oso erraza da egiaztatzekoa, eta beste datu mota batzuetara estropolatzen badugu, zentzuzkoa da pentsatzea gainerako istripuen (larriak, arinak, eta baja gabekoak) azpi-erregistroko portzentajea are handiagoa izan daitekeela.

L.I HILGARRIAK ELA	2014	2015
BIZKAIA	18	27
GIPUZKOA	10	12
ARABA	4	3
NAFARROA	12	12
HEH GUZTIRA	44	54

Datuek erakusten dute 2015ean asko igo direla lan-istripuak, 10 lagun gehiago hil baitira. Horrek esan nahi du hildakoen kopurua % 22,7 igo dela, 2014. urtearen aldean, eta aurreko urteetako joera hautsi dela, kopurua jaisten ari baitzen.

Daturik txarrenak Bizkaikoak dira, laneko istripu hilgarriak % 50 igo baitira. Gipuzkoan bi hildako gehiago izan dira. Nafarroan ez da aldaketarik izan, aurreko urtearekin alderatuta, eta Araban izan da jaitziera bakarra, hots, 2014an baino hildako bat gutxiago.

Gogoratu behar da ELAk bildutako datuak ez daudela osorik. Izan ere, “gertaturiko istripuak” agiriarekin egiaztatu beharko litzateke izan ote den ezagutzen ez dugun istripu ez-traumatikorik edo “in itinere” istripurik; hedabideen bitartez nekez ezagutzen baititugu horrelako lan-istripu hilgarriak. Horregatik nabarmentzen dugu gutxienez 54 lagun hil direla HEHn, baina jakinik ziurrenera bakarren batzuk gehiago izango direla.

ELAk bildutako datuak oinarri harturik, 2015eko istripu hilgarriak sakonago aztertu nahi ditugu, eta hauxe nabarmenduko dugu:

- Laneko istripu hilgarrien % 48 arrazoi traumatikoek eraginda gertatu dira, eta % 42, berriz, istripu ez-traumatikoak izan dira. Istripu hilgarri ez-traumatikoak sektore guztietan gertatzen dira eta azken urteotan ugariatu dira, baina nagusiki industrian. “In itinere” istripuak, berriz, istripu hilgarri guztien % 9 izatera igo dira, eta 2015ean, gehienbat Gipuzkoan gertatu dira.
- Istripu traumatikoen % 46 altuerako erorketek eragin dituzte, eta % 42k, berriz, kolpeekin, leherketekin edo makinek nahiz piezek eragindako harrapaketekin izan dute zerikusia.
- Istripu hilgarriak gehienak berriz ere industrian gertatu dira; istripu hilgarri guztien % 59, hain zuzen. Alde handira zerbitzuen sektorea ageri da, istripuen % 18 gertatu baitira.
- Azpikontratazioari dagokionez, istripu hilgarrien % 18 enpresa azpikontratatu batean gertatu ziren.
- Lan-istripuz hildakoen % 13 langile autonomoak ziren.
- Heriotzen artean, nabarmentzekoa da garraiolari bat lanean erail zutela; beste langile batek bere buruaz beste egin zuela bere lanaldian, eta beste bi hildako garraiolari autonomoak zirela. Kontuan hartu behar da arrisku handia dagoela horrelako istripuak lan-istripu gisa ez zenbatzeko.

2015ean, eraikuntzako istripu hilgarriak ere gutxiago izan dira aurreko urtean baino. Beraz, aurreko urteetako beheranzko joerak bere horretan iraun du; izan ere, sektoreko jarduerak maila apaletan jarraitzen du. Zerbitzuen sektorean, bestalde, nabarmentzekoa da istripu hilgarri asko gertatu direla, eta 2015ean, istripuak ez dira soilik izan istripu ez-traumatikoak eta “in itinere” moldekoak, ohikoa den bezala, altuerako erorketak eta makinek eragindako harrapaketak ere gertatu baitira.

Bestalde, igoera izan da 2015ean istripu ez-traumatikoetan, 2011n hasitako joerari jarraituz. Horrek pentsatzera garamatza arrisku psikosozialek presentzia handi handia dutela lantokietan, eta egiazki arazo larria direla Hego Euskal Herriko langileen osasunarentzat.

Bestalde, nabarmendu behar da azpikontratazioa gero eta zabalduagoa dagoela sektore guztietan, eta lantalde azpikontratatuaren artean arriskua handiagoa dagoela lan prekarietate handiagoa pairatzeko.

3.- LANBIDE-GAIXOTASUNAK

Lehenik eta behin, gauza bat azpimarratu behar da, hots, lanbide-gaixotasunei buruzko datu ofizialek ez dute inola ere erakusten arazoa bere osoan. Izan ere, badago azpi-erregistro eskandalagarria, lanbide-gaixotasun asko jakinarazten ez direlako, eta horren ondorioz, estatistiketan jasotzen ez direlako. Gaixotasun batzuk gaixotasun arrunt gisa edo lan-istripu gisa sailkatzen dira, eta lanbide-gaixotasun gisa erregistratu beharko lirateke.

Izan ere, eta enpresek arlo honetan darabilten jokabideaz ahaztu gabe (beren ardurak ezkututzen eta saihesten saiatzen baitira praktika txarren bidez), berretsi behar dugu ez duela funtzionatzen lanbide-gaixotasunaren inguruko susmoa jakinarazteko sistemak, ez prebentzio-zerbitzuen aldetik, ez osasun-sistema publikoaren aldetik. Mutuak bereziki dira aipatzekoak, haien lana nahitaezkoa baita arlo honetan; horrela, oztopo asko jartzen dituzte patologia bat lanbide-gaixotasun gisa aitortzerakoan, eta horrez gain, gero eta errekurtso gehiago jartzen ari dira INSSek emandako ebazpenen aurka, hau da, gaixotasunen lan jatorria aitortzen duten ebazpenen aurka.

3.1- EAE

Lanbide-gaixotasunei dagokienez, 2015ean Osalanek lanbide-gaixotasunen **2.610** agiri ditu erregistraturik, Gizarte Segurantzari CEPROSS sistemaren bidez jakinarazitakoak. 2014an, **2.459** agiri erregistratu ziren.

EAE	BAJA HARTUTA	BAJA GABE	GUZTIRA
2015	999	1.611	2.610
2014	889	1570	2.459

Iturria: CEPROSS

Beraz, 2015ean, lanbide-gaixotasunen jakinarazpenak guztira % 6 igo dira EAEn, aurreko urtearen aldean. Igoera izan da hala baja-agirietan nola bajarik gabeko agirietan.

Amiantoari lotutako lanbide-gaixotasunei dagokienez, salatzen segitu beharra dago 200 langile baino gehiago hil direla EAEn 2015era arte, zehazki 22 langile 2015ean, lan-bizitzan uneren batean amiantoaren eraginpean lanean aritu izanaren ondorioz. Hainbat txosten ofizialetan esaten da 6.000 lagun inguru (jardunean, baina eraginpean egondako beste enpresa batzuetan, eta erretiratuak) daudela edo egon direla amiantozko zuntzen eraginpean.

Bestalde, nabarmendu behar da 2015ean Bergarako epaitegi batek EAEn emandako epai aitzindaria, Arcelor Mittal enpresari kondena ezarri baitio; zehazki, kalte-ordaina eman beharko die amiantoaren eraginpean egondako langile ohi baten emaztearen seme-alabei, emakumeak ere mesiotelioma pleurala hartu baitzuen, senarraren arropa garbitzen baitzuen, eta arropa amiantoz blaituta zegoen. Epai horrek amiantoaren biktima jakin batzuk aitortzeko bidea ahalbidetu du, hots, zeharkako kutsadurak edo lanetik kanpokoak eragindako biktimak, nahiz eta biktima horiek ezein erregistro ofizialetan jasota ez dauden.

3.2- NAFARROA

Nafarroan, 2015ean, lehen hiru hilabeteetan, lanbide-gaixotasunen **1.151** jakinarazpen-agiri erregistratu dira **CEPROSS** sistemaren bidez; **598** baja eragin dutenak, eta **553** bajarik gabeak. 2014an, denboraldi berean, 1.009 agiri erregistratu ziren; beraz, igoera txiki bat ere izan da Nafarroan, aurreko urtearekin alderatuta, lanbide-gaixotasunen jakinarazpen-agirietan.

NAFARROA URTARRILA- IRAILA	BAJA HARTUTA	BAJA GABE	GUZTIRA
2015	598	553	1.151
2014	475	534	1.009

Iturria: CEPROSS

4.- BALORAZIOAK ETA ONDORIOAK

1.- Lan-ezbeharren egoerak **oso kezagarria** izaten segitzen du Hego Euskal Herrian. Izan ere, istripuak guztira nabarmen igo dira, hala bajarik gabeko istripuak nola baja eragiten dutenak eta istripu hilgarriak. Nabarmenezkoa da igoera lurralde guztietan gertatu dela. Jarduera ekonomikoa handitzearekin batera, lan-ezbeharren igoera asumitzen da naturaltasunez, eta hori amorragarria iruditzen zaigu. HEHko gobernuek ez dute inola ere aldatu lan segurtasunean eta osasunean darabiltzaten politikak, eraginkorrak ez direla egiaztatu arren.

2.- Ezbeharren egiturazko arrazoiak lan merkatuaren gero eta **prekarietate** handiagoa eta enpleguaren kalitate txarra dira. Izan ere, hona hemen sufritzen dugun gizarte arazo horren arrazoi nagusiak: azpikontratazioaren maila izugarri altuak, lan-eritmo itogarriak, lanaldi partzialak gora egin izana (eta horren ondorioz, gero eta jende gehiago behartua dago lan bat baino gehiago egitera hilabete bukaerara iristeko), eta prestakuntzarik eza.

3.- **Lan-istripuen estatistika ofizialek ez dute egiazko egoera erakusten**, arestian azaldu ditugun arrazoiak direla medio. Lan merkatuan gero eta handiagoa da prekarizazioa, eta horren ondorioz, ezkutuan gelditzen da gero eta gehiago gertatzen ari diren lan-ezbeharren zati bat.

4.- **Lanbide-gaixotasunei** dagokienez, axolagabekeria erabatekoa dela salatu behar dugu. 2015ean lanbide-gaixotasunaren inguruko susmo gehiago jakinarazi dira 2014an baino hala EAEn nola Nafarroan, baina ez dira inola ere nahikoak. Datu ofizialek ez dute errealitatea erakusten. Argi dago lanbide-gaixotasunak ezkutuan mantentzen direla eta benetan direnak **baino askoz ere gutxiago** jakinarazten dituztela. Europa eta mundu mailan lanbide-gaixotasunen hazkundea eta eragina hain gai kezkarria izanik (lan-istripuek dituzten ondorioak berak baino kezkarriagoak), hemengo administrazioentzat gai horrek hutsaren hurrengo izaten jarraitzen du.

5.- Administrazioak aplikatzen ari diren **murrizketak eta doikuntzak** egoera larria areagotzen ari dira. Lan-osasunerako gastu publikoa ia hutsean geratu da. Izan ere, gastu hori ez da ezta BPGaren % 0,020ra iristen.

6.- Prekarizazioa gero eta handiagoa da lan-harremanetan, eta horrek zuzeneko eragina dauka langileen **osasun psikosozialean**. Oso baliabide eta bitarteko gutxi eskaintzen dira arrisku psikosozialak atzeman eta identifikatzeko, jakinik ere langileen artean arazo globala eta lehen mailakoa izatera iristen ari dela. Horregatik, gero eta istripu eta gaixotasun gehiago atzematen ari dira eragile psikosozialei lotuta; eta haien artean mobing edo lan-jazarpenaren kasuak nabarmendu behar dira.

7.- **EAEko eta Nafarroako administrazioek ez dute abiarazi ez politika publikorik, ezta behar den neurririk hartu ere**, arazo horren egiazko arrazoiei behar bezala aurre egiteko. Baliabiderik ezak agerian uzten du ez dagoela borondate politikorik lan-osasuna babesteko, defizit hori propagandaren bidez betetzen saiatzen badira ere.

Izan ere, lan-ezbeharrei aurre egin nahi izateko, patronalaren interesen kaltetan doazen neurriak hartu behar dira. Dena dela, ontzat jotzen dira prekarietatea, kontratazioaren arloko lege-iruzurra eta kontrolrik gabeko azpikontratazioa. Horiek horrela, Osalanek. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, eta Lan Ikuskaritzak ez dituzte beren eginkizunak behar bezala betetzen lan-arriskuen prebentzio arloan; hau da, enpresa arau-hausleei jarraipena egitea, kontrolpean edukitzea eta zehapena ezartzea.

5.- ELAren PROPOSAMENAK

1.- ELAk arlo honi buruzko **politika publikoak errotik aldatzeko** eskatzen die gobernu guztiei. Horretarako, aurrekontu-zuzkidura handitu behar da, oraingo beharrianak betetzeko adinakoa izan arte.

2.- **Enplegu duina eta eskubideduna** sortzea lehentasunezkoa izan behar da gobernuen ekintzan. Horren haritik, gobernuen zeregina da enplegua sortzeko politikak bultzatzea eta lan-eskubideak zabaltzea, prekarietatea ezabatuz, kontrolik gabeko azpikontratazioa mugatuz, eta era berean, denboraldi partzialeko kontratazioa eta kontratazioko lege-iruzurra mugatuz.

3.- Erakunde eskudunei eskatzen diegu **zehapen-jarduketa** eredugarriak egiteko hala enpresen aurka, nola zerbitzu mediko eta prebentzio-zerbitzuen aurka. Jarduketa horien xedea prebentzio-arloko praktika txarrak atzematea da, bai eta aipaturiko praktikak abiapuntutik beretik desagerraraztea ere, langileen osasuna lantokietan hobeto zaintzearen.

4.- **Lanbide-gaixotasunek** beharrezkoa duten zentraltasuna eduki behar dute lan osasuneko politiketan; horixe exijitzen dugu. Beste entitate batzuek dituzten eskumenak gorabehera, Osalanek eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak erreferentzia bat izan behar dute lanbide-gaixotasunen aitortzan.

5.- ELAk **ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa** bultzatuko ditu, lan-osasuna hobetzeko tresna gisa. Jendea arazo horretaz kontzientziatuz, antolatuz eta sindikatuon mobilizazioen bidez bakarrik egingo dugu aurrera gure eskakizunetan.

2. LAN-ISTRIPU HILGARRIEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2016KO URTARRILATIK- APIRILARTE

HEH	LAN-ISTRIPU HILGARRIAK
BIZKAIA	12
GIPUZKOA	0
ARABA	0
NAFARROA	5
GUZTIRA	17

*Apirilaren 18 arte